



IKASTOLAKO KIROL ANTOLAKUNTZA

2000-11-21

Hizlaria : Jon Kepa Eguren, Ikastolako irakaslea, I.N.E.Fen lizentziatua

Jon Kepak hasiera ematen du galdetuz zein hizkuntzatan egin behar den, eta jarraian dena erderaz azaldu zuen iaz ikusitakoaren jarraipena izango dela, hasieran berrientzat antolakuntza nola den adinka azalduz:

- Benjaminak: 3. Eta 4. Maila
- Alebinak: 5. Eta 6. Maila
- Infantilak: DBH 1 eta 2
- Kadeteak: DBH 3 eta 4
- Jubenilak: Batxilerra.

Azaltzen du prozesoa ekainan hasten dela zirkularra bidaliaz galdetuz ea nork parte hartu nahi duen hurrengo kurtsoan kirol eskolarrean. Jaso diren datoekin planifikatzen dira entrenamendu egunak eta lekuak eta ikasleei banatzen zaizkie kurtsoa bukatu aurretik. Baita ere dato horiek kurtso hasierako zirkularrean txertatzen dira.

Urtero irailan altak eta bajak egoten dira eta ajuste batzuk egin behar izaten dira.

Aurtengo partaidetzaren datoa eskeintzen du esanaz ikasturte honetan 26 talde desberdin daudela bertan 273 ikaslek parte hartzen dutelarik.

Azken urtetan arazo handia bilakatzen ari da guretzat eta baita ere beste ikastetxeentzat monitoreak aurkitzea talde guztientzat.

Aipatzen du baita ere abenduan bi edo hiru egunetako formazio saioak egiten direla ikastolan monitoreekin.

Hitzaldiaren 2. Zatia “Baloreetan hezitzea kirolaren bidez”. Errespetoa, puntualitatea, kidesuna...

¿Zergatik landu baloreak kirolean? Honen inguruan Euskalerriko Unibertsitatean tesi bat egiten ari dira eta Saski baloiko koordinatzailea den Jabi Ruiz eta Jon Kepa inplikatu egin dira bertan.

Aipatzen du kirol eskolarrean 4 estamentu daudela: koordinatzaileak, gurasoak, monitoreak eta ikasleak. Horietako bi lehenengoak profesionalak izanik eta beste biak berriz ez profesionalak. Hori dela eta, konfliktoak sortzen dira, eta nola erantzun horren aurrean?

Konflikto moetak:

- Errespeto falata umeen artean.
- Errespeto falta umea-monitoreak.
- Konfliktoa monitoreak-umeak.
- Konfliktoa monitoreak-gurasoak.
- Konfliktoa guraso-umeak.
- Konfliktoa umea-arbitroak.
- Konfliktoa monitoreak-arbitroak

Konflikto moeta hauen aurrean ikasleen adinaren arabera nola jokatu landu zuen jarraian.

Umeen arteko konfliktoa:

Benjaminak: Normalean erraz konpontzen da, ez da beharrezkoa gurasoen partaidetza. Monitoreak nahikoa izaten da eta bestela koordinatzaileak behar bada tutore-psikologoaren laguntzaz.

Alebinak: Hemen kideen bitartekaritza bultzatzen da, kapitanaren figuraren garrantzia eta figura hori rotatiboa izatearena. Horrela konponduko ez balitz koordinatzailearen figura sartuko litzateke eta beharrezkoa balitz gurasoak. Aholkatzen da gurasoak ez sartzea konbokatua ez badira. Ez onartu kexak soluzioren plantemendurik gabe.

Umea eta monitorearen arteko konfliktoa:

Saiatu behar gara konpontzen umea eta monitorearen arteko bilera batekin. Horrela ezin bada, koordinatzailea sartuko litzateke tartean.

Monitoreak eta gurasoen arteko konfliktoa:

Ezin onartu bi estamentu hauen arteko enfrentamentu bat, bereziki ikasleen aurrean eta beroaldi une batetan.

Gurasoak koordinatzaileen konfidenteak izan behar dira eta normala iruditzen ez zaien guztia koordinatzaileari komentatu. Hemen korreo elektronikoaren aipamena egin zuen.

Berandutzen ari zenez galde erantzunetara pasa zen:

- Zer gertatzen da nahiko jende ez baldin badago talde bat osatzeko? Hemen erantzun zitzaion normalean benjamin, eta alebin mailetan gelaka talde bat osatzen zela mutilena eta bestea neskena. Gelaren batetan lortzen ez bada, horiek multzoka beste geletan sartzen direla.

- Benjamin eta alebin maileta zein erizpidea zeinek jolasten duten erabakitzeo? onenak, rotazioa...? Erantzuna izan zen, asistentzia eta entrenamendutan erakutsitako errendimendua (gogo bezala ulertuz). Baita ere kontutan hartu behar dela dauden arauak bai saski baloian eta baita ere futboleko denen partaidetza bultzatzen dutela eta horregatik ez dela gelditzen umerik jokatu gabe minimo inpotante bat.
- Zenbateko aurrerapenarekin jakiten da partidoaren eguna eta ordua? Eguna denboraldi hasieratik badakizkigu baina orduak astean bertan. Etxean jokatzen badu astelehenean bertan eta bestela teoriarik ostegunerako jakin behar genuke.